Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

1338

EBAZPENA, 2011ko otsailaren 3koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, zeinen bidez jendaurrean jartzen baita nekazari gazteen instalazioari emandako laguntza nazional osagarriaren onuradun direnen zerrenda. Laguntza horiek, Nekazaritzako egiturazko eta ingurumeneko laguntzei buruzko uztailaren 8ko 133/2008 Dekretuaren babesean 2010. urtean emandakoak dira.

Nekazaritzarako egiturazko eta ingurumeneko laguntzei buruzko uztailaren 8ko 133/2008 Dekretuaren xedea nekazaritzaren sektoreko lehiakortasuna areagotzeko eta nekazaritza eta ingurumen neurriak ezartzeko esparru araudia finkatzea da Euskal Autonomia Erkidegoaren baitan, irailaren 20ko 1698/2005 Erregelamenduan (EE) xedatutakoarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko Programarekin bat etorriz.

Nekazari gazteen instalazioari emandako laguntzei dagokienez, uztailaren 8ko 133/2008 Dekretuaren 10. artikuluak ezartzen duenez, dekretu horretako aurreko artikuluan aurreikusitako laguntzez gain Estatuak laguntza osagarria eman ahalko die nekazari gazteei, artikulu hartan aurreikusitako betekizun, irizpide eta prozedura berdinei jarraituz.

Halaber, 27. artikuluak finkatzen du bi laguntzen eskabidea elkarrekin aurkeztuko dela Nekazari Gaztearen Bulegoen arduradun den foru organoaren aurrean eta foru aldundiek horretarako finkatzen dituzten epe, toki eta moduan. Halaber, adierazten da Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako sailburuaren aginduaren ondotik publizitatea emango zaiela Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura, aurrekontu ekitaldi bakoitzaren barruan, dekretu horren 10. artikuluari jarraiki eman beharreko laguntza guztiei.

2010eko ekitaldirako, eman beharreko laguntzen bolumen osoari emandako publizitatea uztailaren 8ko 133/2008 Dekretuko Lehen Xedapen Iragankorraren bitartez egin zen, eta 2009ko ekitaldirako, aldiz, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2009ko urriaren 8ko Aginduaren bitartez.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariak, dekretu horrek ematen dion eskumenaren ondotik, ai-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

1338

RESOLUCIÓN de 3 de febrero de 2011, de la Directora de Agricultura y Ganadería, por la que se hace pública la relación de beneficiarios de la ayuda nacional complementaria a la instalación de jóvenes agricultores concedidas en el año 2010 al amparo del Decreto 133/2008, de 8 de julio, sobre ayudas estructurales y ambientales del sector agrario.

El Decreto 133/2008, de 8 de julio, sobre ayudas estructurales y ambientales del sector agrario tiene por objeto establecer, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la normativa marco de las ayudas para el aumento de la competitividad del sector agrario y para el establecimiento de medidas agroambientales, de conformidad con lo dispuesto en el Reglamento (CE) n.º 1698/2005 de 20 de septiembre y con el Programa de Desarrollo Rural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Por lo que se refiere a las ayudas a la instalación de jóvenes agricultores, el artículo 10 del Decreto 133/2008, de 8 de julio, establece que además de la ayuda prevista en el artículo anterior de dicho Decreto, se podrá conceder una ayuda estatal complementaria a los jóvenes agricultores conforme a los mismos requisitos, criterios y procedimientos previstos en dicho artículo.

Asimismo, su artículo 27 dispone que la solicitud de ambas ayudas se presentarán conjuntamente ante el Órgano Foral responsable de las Oficinas del Joven Agricultor en los plazos, lugares y forma que determinen las Diputaciones Forales y que mediante Orden del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación se dará publicidad al volumen total de las ayudas a conceder dentro de cada ejercicio presupuestario en virtud del artículo 10 de dicho Decreto con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Para el ejercicio 2010 la publicidad al volumen total de las ayudas a conceder se dio mediante la Orden de 2 de agosto de 2010, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca.

La Directora de Agricultura y Ganadería, en virtud de la competencia que le asigna dicho Decreto

patutako xedapenaren babesean eskatutako laguntzen emakida ebatzi zuen.

Gauzak horrela, behin ebazpenak kasuan kasuko esleipendunei jakinarazita, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ziren laguntzak eta onuradunak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49. artikuluko bigarren idatz-zatiko bigarren paragrafoan ezarritakoa betez.

Horren arabera:

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Nekazari gazteen instalaziorako Estatuko laguntza osagarriaren onuradun zerrenda argitaratzea, 2010eko ekitaldiari dagokiona, guztiek horren berri izan dezaten. Laguntza horiek Nekazaritzako egiturazko eta ingurumeneko laguntzei buruzko uztailaren 8ko 133/2008 Dekretuaren babesean eman dira. Zerrenda hori ebazpen honen eranskin modura sartu da.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko dute Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordearen aurrean. Horretarako, hilabeteko epea egongo da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko otsailaren 3a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
MARÍA PILAR SANTAMARÍA MARTÍNEZ.

resolvió la concesión de las ayudas solicitadas al amparo de la precitada disposición.

Así, una vez notificadas las resoluciones a sus correspondientes adjudicatarios, procede la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de las ayudas y personas beneficiarias, en cumplimiento de lo establecido en el apartado 2, párrafo segundo, del artículo 49 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de los Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

En su virtud,

RESUELVO:

Primero.– Publicar, para su general conocimiento, la relación de beneficiarios de la ayuda nacional complementaria a la instalación de jóvenes agricultores concedidas en el ejercicio 2010 al amparo del Decreto 133/2008, de 8 de julio, sobre ayudas estructurales y ambientales del sector agrario, que se incluye como anexo a la presente Resolución.

Segundo.– Contra la presente Resolución los interesados podrán interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Agricultura y Desarrollo Rural en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de febrero de 2011.

La Directora de Agricultura y Ganadería,
MARÍA PILAR SANTAMARÍA MARTÍNEZ.

ERANSKINA / *ANEXO*

Nekazari gazteen instalaziorako Estatuko laguntza osagarrien onuradun zerrenda. Horiek 2010eko ekitaldian eman dira Nekazaritzako egiturazko eta ingurumeneko laguntzei buruzko uztailaren 8ko 133/2008 Dekretuaren babesean.

Relación de beneficiarios de la ayuda nacional complementaria a la instalación de jóvenes agricultores concedidas en el ejercicio 2010 al amparo del Decreto 133/2008, de 8 de julio, sobre ayudas estructurales y ambientales del sector agrario

1.–	Asier Rituerto Turrado	15.000
2.–	Gorka Asurmendi Ruiz	15.000
3.–	Idoia Azkarate Larrañaga	25.000
4.–	Ruben Sabalza Hernaez	25.000
5.–	Miren Olatz Olano San Sebastián	21.250
6.–	Pedro M.ª Olano Imaz	25.000
7.–	Aitor Aranburu Artano	25.000
8.–	Javier Urruzola Arana	25.000
9.–	Domingo Arrieta Etxezarreta	17.500
10.–	Laurendi Iztueta Almorza	25.000
11.–	Xabier Illarramendi Egaña	25.000
12.–	Andoni Iruretagoiena Rezabal	25.000
13.–	Zorione Iruretagoiena Rezabal	25.000
14.–	Hector Puente Varona	25.000
15.–	Gorka Fernandez Nieves	10.000
16.–	Juan Angel Beraza Martin	17.500
17.–	Xiber Uriarte Angoitia	25.000
18.–	Gorka Jaio Tamayo	25.000
19.–	Arkaitz Biritxinaga Arana	10.000
20.–	Iban Muniozguren Laka	10.000
21.–	Ander Zabala Bengoa	13.750
22.–	Joseba Zabala Larandagoitia	21.250
23.–	Illart Bazeta Agirre	10.000
24.–	Alicia Goyogana Barrutia	25.000
25.–	Haritz Quintana de la Maza	25.000
26.–	Monica Ribeiro Lima	10.000
27.–	Zigor Barros Urruela	21.250
28.–	Andoni Aretxabaleta Larraskitu	25.000